

LAUDIO

2010 urteko Kirol Dirulaguntzak

Tokiko Gobernu Batzarrak 2009ko abenduaren 11an, 2010 urtean Kirol ekintzak garatzeko dirulaguntza deialdiaren oinarriak onartu ditu. Hauen kopurua 46.400 eurokoa izango da eta 2010 urteko Aurrekontuen 06-4521-481.00 diru atalaren kargutan, ondoren zehazten den moduan.

2010 URTERAKO KIROL AKTIBITATEAK EGITEKO DIRULAGUNTZAREN DEIALDIA

- 1.- Objektua
- 2.- Aurrekontua
- 3.- Onuradunak
- 4.- Onuradunen betebeharrak
- 5.- Eskakerak eta Dokumentazioa
- 6.- Epea
- 7.- Balorazio irizpideak
- 8.- Diru laguntzen kopurua eta kalkulua
- 9.- Azterketa, erabakia eta eskumeneko Organoak
- 10.- Jakinarazpena eta Ordaintzeko Era
- 11.- Diru Laguntza ordaintzeko bermea
- 12.- Diru Laguntzaren muga
- 13.- Bateriaezintasunak
- 14.- Kontrol bermeak
- 15.- Erabakiaren aldaketak
- 16.- Diru Laguntzaren likidazioa. Betebeharrak
- 17.- Diru Laguntzaren galera
- 18.- Zati baten itzulpena eta Ez Betetzeen Graduaziorako Irizpideak
- 19.- Zigorrak
- 20.- Garapena, interpretazioa eta zabalkundea.

Lehenengoa.- Objektua

Laudioko Udalak Kultura eta Kirolak Arloaren bitartez ematen dituen diru laguntzak lehiakortasun erregimenaren arabera arautzea da oinarri hauen helburua. Erakundeak garatzeko eta 2010. urtean zehar Laudion egingo diren kirol jarduerak eta programak garatzeko eta egiteko emango dira diru laguntzak.

Oinarri hauek beteta, zalantza gabe diru laguntza emandako jardueretarako bakarrik izango dira diru laguntzen gastuak.

Kirol izaera duten jarduerak kofinantzatzeko laguntzak diru laguntza kontzeptu gisa emango dira. Era berean, Arabako Lurralde Historikoan Diru Laguntzen eta Transferentzien 3/97 Diputazioaren Arauari, otsailaren 7koa; Diru Laguntzerako Lege Nagusiari 38/03, azaroaren 17koa; Udalen Zerbitzuen Araudiari eta bestelako lege osagarriei lotuta egingo dira.

Bigarrena.- Aurrekontuak

Deialdi honen bitartez emandako diru laguntzen kopuru osoak ezingo du alde zuzenetik ikusitako 46.400 euroak gainditu.

Laudioko Udaleko 2010 urterako Aurrekontu Nagusien 0600-4521 481.00 partidan sartuko dira gastuak.

Gainera, oinarri hauen objekturako diru laguntzen ematea kreditu egokia eta behar den bestekoa egotearen menpe izango da. Izan ere, dataren egunean ez da onartu oraindik Laudiko Udaleko 2010. urterako Diru Sarreraren eta Gastuen Aurrekontua.

Hirugarrena.- Onuradunak

Jarduera sustatu edo egiten duen pertsona fisikoak edo juridikoak izan ahal izango dira onuradunak.

Onuraduna pertsona juridikoa denean, jarduera egiteko—zati bat izan arren— eta ekimena sustatzeko konpromisoa hartzen duten onuradunaren elkartekideak onuradun izaera izango dute.

Pertsona fisikoen edo juridikoen Elkarreak direnean, publikoak edo nortasun gabeko pribatuak, Elkarreko kide bakoitzak hartutako konpromisoak zehaztu beharko ditu eskaeran zein kontzesioaren erabakian. Era berean, bakoitzak erabiliko duen diru laguntzaren kopurua zehaztu beharko da, horiek ere onuradun izaera izango baitute. Horrela denean, elkarrearen ordezkari edo ahaldun bakarria izendatu beharko dute, onuradun den legez dituen betebeharrak egiteko ahalmen nahikoa duena. Diru Laguntzen Lege Nagusiko (azaroaren 17ko 38/2003 legea) 39 RCL 2003/2684 eta 65RCL 2003/2684 artikuluetan zehazten den preskripzio epea amaitu baino lehen, elkarrea ezin izango da banandu.

Irabaz asmorik gabeko kirol elkarte eta erakunde publikoek zein pribatuek lortu ahal izango dituzte laguntzak. Helburu horrekin, erakunde horiek edo ordezkariak Laudion izan beharko dute bere egoitza soziala, edo, bestela, udalerrian egin beharko dituzte beren jarduerak. Gainera, baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Eusko Jaurlaritzako Elkarreen eta Erakundearen Erregistroan sortuta eta sartuta egotea.
- Laudioko Elkarreen Udal Erregistroan izena emanda egotea.
- Beren programak eta aurrekontuak botere publikoaren kontrolerako uztea.
- Eguneroko jardunean eta botere organoetan demokraziaz jokatzeko dutela bermatzea.

Halaber, Laudion egoitza duten ikastetxeak eta beren gurasoen elkarreak izan daitezke onuradunak, beti ere deialdi honen helburuak betetzen badituzte eta emandako laguntza eskola orduetatik kanpoko jardueretarako bada.

Gure udalerrian erroldatutako pertsona fisikoak ere onuradunak izan daitezke. Era berean, udalerriko elkarreak -pertsona fisikoenak zein juridikoenak- ere izan daitezke onuradunak. Publikoak edo nortasun gabeko pribatuak izan daitezke.

Diru Laguntzen Lege Nagusiaren (azaroaren 17ko 38/2003 Legea) 13. artikuluan zehazten diren egoerak betetzen ez dituen pertsonak edo elkarreak ezin izango du onuradun izaera eduki.

Laugarrena.- Onuradunen betebeharrak.

Onuradunen betebeharrak honako hauek dira:

- Helburua betetzea, proiektua aurrera ateratzea, jarduera egitea edo diru laguntza ematea arrazoitzen duen jarrera izatea.
- Laudioko Udalari beharizanak eta baldintzak bete direla egiaztatzea. Era berean, jarduera egin dela eta diru laguntza ematea arrazoitzen duen helburua bete dela egiaztatzea behar da.
- Laudioko Udalak edo eskumena duen egiaztatzerako edo finantza kontrolerako edozein elkarreko eskatzen duenean, egiaztatze jarduerak betetzeko prestutasuna izatea. Eskumena duten organoak nazionalak edo Europako Batasunekoak izan daitezke, eta aurrez aipatutako jarduerak egin ahal izateko behar den informazioa eman beharko zaie.
- Diruz lagundutako jardueretarako bestelako diru laguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak lortu direla ahal denik eta azkarren jakinarazi beharko zaio Laudiko Udalari.
- Erabakia hartu baino lehen, Gizarte Segurantzarako ordainketak eta zergak ordaindu direla egiaztatzea behar da.
- Kontuen liburuak izatea, erregistroak beteta eta bestelako dokumentazioa behar den moduan auditatuta izatea. Merkataritzarako Legediak esaten duenaren eta diru laguntza jasoko duen onuradunaren sektorearen hitzarmenaren arabera egon beharko da dokumentazio guztia.
- Jasotako diru laguntzaren erabilera egiaztatuko duen agiri guztiak izan behar dira, elektronikoak ere bai, egiaztatze eta kontrol jardueretarako erabil daitezkeelako.
- Diru laguntza jaso duen programak, jarduerak, inbertsioak edo bestelako ekintzak finantzazio laguntza izan duela behar den moduan esan behar da jendaurrean. Hala, "BABESLEA:

LAUDIOKO UDALA / PATROCINA: AYUNTAMIENTO DE LLODIO” testua kartel, argazki, megafonia edo jarduerarekin lotutako edozein komunikaziotan agertu beharko da. Gainera, eta ahal dela, udalerraren anagrama edo armarrria besteen moduko neurrian agertu beharko da (beste norbaitek emandako diru laguntza Udalarena baino handiagoa denean izan ezik). Era berean, hizkuntza politika ofizial elebiduna kontuan izan beharko da. Udal honetako Gobernu Batzordeak 2002ko azaroaren 12an onartutako erabakian arautua dago hori: "Udalak diruz lagundutako jardueren publizitate, argitalpen edo bestelakoetan gutxienez euskarazko bertsioaren presentzia bermatuko da. "

- Itzulpena egiteko arrazoiren batean izango balitz, jasotako diru laguntza osoa itzuli beharko litzateke.

Bosgarrena.- Eskaerak eta dokumentazioa.

Eskaerak araututako eran eta udaletxeko Idazkaritza Nagusian aurkeztu beharko dira.

Eskaerarekin batera, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

- Eskaera sinatzen duenaren NANaren fotokopia, bere izenean edo elkarte baten ordezkari lana egiten duelako. Eskaera egiten duena elkarteko presidentea izango ez balitz edo elkarteak izaera juridikorik ez balu, elkarteak eskaera egiten duenari ordezkari lana egiteko ahalmena ematen dion dokumentazioa aurkeztu beharko du.
- Eskaera egiten duen elkartearen IFZ.
- Laudioko Elkartearen Udal Erroldan izango ez balitz, bertan izena eman ahal izateko dokumentazioa aurkeztu beharko da. Erakundearen Estatutuen fotokopia, legez sortua izatea eta Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroan dagoela egiaztatu beharko da. IFZren egiaztatzea ere aurkeztu beharko da.
- 2010. urterako jardueren programa aurkeztu behar da. Bertan agertu beharko da:
 - . jarduera horien helburua
 - . jarduera bakoitza egingo den tokia, data eta zenbateko iraupena izango duen
 - . nori zuzenduta dagoen eta jarduerarekin zenbat pertsonak jasoko duten onura.
 - . Euskararen erabilera.
 - . jardueraren esparrua
 - . azken urtean beste elkarteekin elkarlanean egindako jardueren zerrenda.
 - . Diru laguntza eskatzen den ekimenen eta jardueren diru-sarrera eta gastuen aurrekontu zehaztua. Horren helburua da diru laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko orduan, diru lagungarriak diren gastuetarako laguntza ematea soilik; inolako zalantza barik ekintza eta jarduera horiek diru laguntza eskatu den jarduerarekin bat etorri behar dira.
 - . Diru laguntza ordaindu ahal izateko, eskatzen duenaren kontu korrante zenbakia.
 - . Jarduerak egin ahal izateko giza baliabideak, baliabide teknikoak eta materialak zehaztea.
 - . Erakundea sortu zen data.
 - . Diru laguntza eskatu den programarako beste erakunde publiko edo pribatuei egindako diru laguntza eskaeren zinpeko adierazpena. Diru laguntza jaso dela edo ez dela jaso jakin bezain laster, Laudioko Udalarik jakinarazi beharko zaio, diru laguntzaren kopurua berriro zehazteko.
 - . Udalarik, Diputazioari eta Gizarte Segurantzari egin beharreko zerga ordainketa guztiak eginak izatea, hala nola zuzenbide publikoko diru-itzulketak edo gainerako zorrak.
 - . Diru laguntzak itzultzeagatik egin beharreko ordainketa guztiak eginak izatea.
 - . Onuradun izateko debekuren bat ez betetzea. Diru Laguntzen Lege Nagusiko (azaroaren 17ko 38/03 Legea) 2. eta 3. artikuluetan zehazten dira onuradun ezin izateko debekuak.

Administrazio agintaritzaren edo notario publikoaren aurrean egindako ardura adierazpen bakarrekin ordezkatu ahal izango dira azken hiru dokumentuak.

Administrazioak bere esku dituen dokumentuak ez dira aurkeztu beharko, beti ere eskatutako prozeduraren amaiera epetik bost urte igaro ez direnean eta dokumentazioa aurkeztu zeneko data eta erakundea zehazten denean, Diru Laguntzen Lege Nagusiaren 23. artikulua zehazten duenari jarraituta.

Iraungipen data duten dokumentuak —zergak ordainduta izatea, esaterako— aurreikuspen honetatik kanpo geratzen dira.

Udaletxeko Idazkaritza Nagusian (Herriko plaza z/g 01400 Laudio) aurkeztu beharko dira eskaerak. Administrazio Publikoen Erregimen Juridikorako Legean eta Ohiko Administrazio Jardueretan zehazten den gisa ere aurkeztu ahal izango dira.

Seigarrena.- Epea.

Oinarri hauetan arautzen diren laguntzak lortzeko eskaerak aurkezteko epea ALHAOn deialdia argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta deialdia egin denetik hilabetera bukatuko da. Epea lan eguna ez denean bukatzen bada, hurrengo lehen lan egunera arte atzeratuko da.

Aurkeztu den dokumentazioan irregulartasunik edo zerbait falta dela antzeman bada, aurkeztu denetik hamar eguneko epea emango zaio zuzentzeko.

Behin epea bukatu denean, eta akatsa zuzendu ez bada, artxibatu egingo da eta ez du administrazioarentzat baliorik izango.

Zazpigarrena.- Irizpideak

Dirulaguntzak ematean honako irizpide hauek izango dira kontuan:

a) Era proportzionalen banatuko da, lortutako puntuazioaren arabera, ehuneko 10 bat, dirulaguntza eskatzen duen erakundeak bere kirol esparruan erakutsitako jarraikortasun, egonkortasun eta fidagarritasuna. Puntuazioa: 0 eta 20 puntu bitartekoa, lan egindako urte bakoitzeko lau puntu lortuko direlarik.

b) Federazio-txarteletarako ordaindu eta justifikatu den diru osoa oinarritzat hartuta, ehuneko 30a banatuko da. (Dirulaguntza eskaera aurkeztu den unean oraindik ordaindu barik baleude, sortuko den kostua egiaztatzen duen federazioaren agiri bat aurkeztuko da).

c) Dirulaguntzak hartzen duen urtaldian garatzen diren ekimenetarako, ehuneko 60a banatuko da. Esandako banaketa jarraian azaltzen den moduan burutuko da:

- ehuneko 10a era proportzionalen banatzeko udaletik inolako dirulaguntzarik jasotzen ez duten elkarten artean, bai udalak bere kirol-gune edo bestelako instalazioak edo beren erabilpena eta mantenua uzten dizkielako, bai taldearen ekitaldietan udalak bere material eta baliabide teknikoak uzten dizkielako.

- ehuneko 50a banatzeko ekitaldiak antolatzen sortutako defizitaren arabera; aurreikusitako aldundiaren eta udalaren laguntzak deskontatu beharko dira.

Zortzigarrena.- Dirulaguntzen zenbatekoa eta kalkulua.

1.- Dirulaguntzen zenbatekoa

Behin aurreko oinarrian jasotako irizpideak erabili eta aintzakotzat hartuz klausula honen bigarren puntuan, laguntzaren zenbatekoa kalkulatu da, ekarritako dokumentazioaren arabera.

Urte osoko kirol egitarauetarako kontuan izatekoak:

- Arestiko laguntza irizpideetatik kanpo geratuko dira Laudioko ikastetxeek euren instalazioetan burutuko dituzten kirol ekitaldiak. Aipatutako ikastetxeei 600 euroko dirulaguntza emango zaie beti, hau da, aurkeztutako egitarau eta aurrekontuak kontuan izan barik baina beti sortutako defizita ez badu gainditzen. Edozein modutan ere, ikastetxe bakoitzari dirulaguntza bakarria dagokio, hau da, laguntzarako kontuan izan bada ikastetxeak aurkeztutako kirol egitasmo bat ez dira aintzakotzat hartuko guraso elkarte edo antzekoek aurkeztutako eskaerak eta alderantziz.

2.- Urte osoko kirol egitasmoei emango zaizkien banan-banakako dirulaguntzen kalkulua honelaxe egingo dira:

Dirulaguntza deialdi honen kopuru osotik lehenik deskontatuko diren kopuruak, kopuru tinkoko dirulaguntzak izango dira (ikastetxeak edo ikastetxetako guraso elkarteak). Laguntza horiek kenduta sortuko den kopuru berria –KB-, oinarria izango da aurkeztuko diren gainontzeko dirulaguntza eskaerei aurre egiteko, deialdi honen zazpigarren oinarrian ezarritako irizpideen arabera.

Bederatzigarrena.- Azterketa, erabakia eta eskumeneko Organoak

Oinarri hauetan zehazten diren helburuak eta betebeharrak betetzen dituzten urte osoko kultur programen diru laguntza eskaerak banan-banan Kultura Sailean aztertuko dira.

Aurkeztutako dokumentazioan lege hausteren bat edo akatsen bat agertuko balitz, aurkezpen egunetik hasita arazoa konpontzeko hamar eguneko epea egongo da. Era berean, Laudio Udalak 15 lanegun izango ditu prozesuan zehar, informazio edo dokumentazio osagarria eskatzeko. Bi kasuetan, epea amaituta eskaera ez bada zuzendua izan, artxibatu egingo da eta administrazio balio gabe geratuko da.

Aurrez azaldutakoa eta deialdi honetako zazpigarren oinarria kontuan izanda, urte osoko kirol programen inguruko dokumentua prestatuko da. Dagozkion balorazio irizpideak eta zortzigarren oinarriko irizpideak kontuan hartuta egingo da, eta Kultura Saileko teknikariek egingo dute. Balorazio horiek Balorazio Epaimahai batera igorriko dira, azter ditzaten. Udalbatzarreko Kultura, Kirolak eta Euskara Gaien Informazio Batzordeko kideek eta Kultura Saileko Koordinatzaileak osatuko dute Epaimahaia, eta azken horrek idazkari lanak egingo ditu.

Balorazio Organoaren espedientea eta txostena aztertu ostean, Kultura Saileko zinegotzi ordezkariak behin-behineko erabaki proposamena egingo du. Behar den moduan arrazoitua egon beharko da, eta interesdunei jakinarazi beharko zaie, alegazioak aurkezteko hamar eguneko epea emanez. Balorazio Organoak alegazioak aztertu ostean, Kultura saileko zinegotzi ordezkariak behin betiko proposamena egingo du. Proposamen horretan haxe zehaztu beharko da:

- . Diru laguntza lortu ahal izateko zenbatak egin duten eskera.
- . Diru laguntzaren zenbateko zehatza eta ekintza.
- . Diru laguntza emateko zein arrazoi izan diren eta jarraitu diren irizpideak.

Hamargarrena.- Jakinarazpena eta ordaintzeko era.

Kultura Saileko zinegotzi ordezkariak behin betiko erabakia onartuta, eta diru laguntza onarpen guztiak epe barruan jaso ostean, prozeduraren erabakia Udaleko Gobernu Batzordearen esku utziko du erabakia. Erabakia arrazoitu egingo da, eta, bestela ere, erabakia hartzeko jarraitu diren irizpideak zehaztu beharko dira. Diru laguntza jasoko duten eskaera egilearen edo egileen izenak agertu beharko dira. Era berean, diru laguntzaren kopurua, ordaintzeko modua, emango diren baldintzak eta epea agertu beharko dira. Gehienez ere, jarduera amaitu eta hilabetera emango da diru laguntza, eta ezin izango du 2011ko urtarrilaren 21a inoiz gainditu.

Diru laguntza horik ordaintzerakoan, kopuruaren ehuneko 100a eman beharko da, behin-betiko erabakia hartuta dagoela.

Erabakia hartu eta jakinarazpenerako gehieneko epea sei hilabetekoa da. Deialdia egiten den unetik hasiko da epea, deialdiak berak epearen jakinarazpena atzeratzea zehazten ez badu.

Diru laguntza ematearen erabakiarekin amaituko da administrazio bidea.

Gehieneko epea gaindituta erabakia ez bazaio interesdunari jakinarazten, diru laguntza eskaera ez dela onartu esan nahi du, administrazioa isilik dagoelako.

Eskaera egin duten proiektuei diru laguntza osoa edo zatikakoa ez emateko eskubidea gordetzen du Udalak, edo, hala behar balitz, deialdia bete gabe utzi.

Deialdi honen eta honen bitartez eratorritako jardueren kontra egiteko aukera dago. Administrazio Publikoen eta Prozedura Komunen Erregimen Juridikoaren Legeak (azaroaren 26ko 30/92 legea) eta 4/99 Legeak —aurrekoaren moldaketa da— esaten dutenari jarraituta.

Hamaikagarrena.- Diru laguntza kontuan ordaintzeko bermea.

Erabakia hartu eta gero diru laguntzaren ehuneko 100aren ordainketa aurreratzean, Laudio Udalak bermeak eska diezazkieke onuradunei. Aurrerapenak kontu korrontean sartzegatik egin beharreko gastuen ordainketak eta, atzerapena gertatuko balitz, aurreratutako kopurua arrazoitu aurretik egongo lirakeen interesen ordainketak bere gain hartu beharko lituzkete onuradunek. Bermea esku-diruz (eskura, bankuko txekia edo zehaztutako taloia), abal biez, kauzio aseguru kontratu bidez edo balore publiko bidez egin daiteke.

Hamabigarrena.- Diru laguntzaren muga.

Deialdi honen bitartez egiten diren diru laguntza guztien kopuruak onuradunak egingo duen jardueraren gastua ezingo du inoiz gainditu.

Beste erakunde batzuk jarduerari egindako finantzazio laguntzak behin ezagututa edo bestelako diru sarrerak zeintzuk diren jakinda, emandako diru laguntza berriro azter dezake Balorazio Organoak. Hala, gastu eta diru sarreren azken likidazioan defizita egon beharko da. Horrek zortzigarren oinarrian zehaztutako portzentajeetan ez du zertan eragin behar.

Hamahirugarrena. Bateriaezintasunak.

Laguntza hauek eskuratzea bestelako diru laguntza batzuk lortzearekin bateragarria izango da. Baina Laudioko Udaleko beste sail batek ezin izango du jarduera bererako laguntzarik eman, sailen arteko adostasuna izan ezean edo aldez aurretik horren berri izan ezean. Sailen arteko adostasuna egongo balitz, eta Udaleko beste sailak emango duen laguntzaren berri izan eta gero, emandako diru laguntza berriro aztertuko da, oinarri hauetan esaten denaren arabera. Hasieran onartutako laguntza kopuru berbera izateko murriztuko da diru laguntza.

Beste finantzazio bide batzuk dauden edo ez egindako zinpeko adierazpenean laguntzak zenbatekoak diren, eta, behar izanez gero, oraindik erabakitzeke dauden laguntzarik ote dagoen zehaztu beharko da. Diru laguntza guztien kopurua jarduerarako onartua dagoen aurrekontua baino handiagoa denean, emango den diru laguntza aurrekontua gainditzen den kopuruan murriztuko da.

Oinarri hauetan araututako diru laguntza—bakarrean edo beste diru laguntza batzuekin lehian—onura jasoko duen Elkarteak prestatuta daukan programaren aurrekontua baino handiagoa ezingo da izan.

Hamalagarrena.- Kontrol bermea

Diru laguntza ematen duen organoak beharrezkoak ikusten dituen administrazio kontrolak eta ikuskaritzak egin ahal izango ditu, aurkeztutako dokumentazioko datuak egiazkoak diren edo diru laguntza jaso ahal izateko jarritako eginbeharrak betetzen dituen egiaztatzeko.

Ikuskaritzan laguntzeko betebeharra du onuradunak, eskatutako datuak emanez eta, behar izanez gero, jarduerak egiten diren lokaletara sarrera erraztuz.

Hamabosgarrena.- Erabakiaren aldaketa

Diru laguntza eman eta gero, aurkeztutako programaren garapenean, proposatutako jardueratan, aurrekontuan eta bestelakoetan dauden aldaketen berri eman beharko dio onuradunak Laudioko Udalari. Aldaketak onuradunaren borondatearen kontra egin behar izan badira edo diru laguntza lortu ahal izateko ezarriak zeuden baldintzak edo bestelako gorabeherak gertatu direlako bakarrik egon daitezke programaren aldaketak.

Aldaketen berri eman eta gero, Udal Gobernuak -Balorazio Organoaren txostena jaso ostean eta hilabeteko epean- diru laguntzan izandako aldaketaren berri emango dio onuradunari; jakinarazpena idatziz egin beharko da derrigorrean. Diru laguntzaren kopuru berria eta berau jasotzeko ezarritako baldintza berriak zehaztuko dira bertan. Epe hori gainditu eta gero, Laudio Udalak diru laguntza berriz aztertzeko eskaerari erantzuten ez badio, onartutzat emango da.

Hamaseigarrena.- Diru laguntzaren likidazioa. Betebeharrak

Arrazoizko kontu ematea onuradunaren betebeharra da. Bertan, adierazpena egiten duen erantzukizunpean, diru laguntza ematea arrazoitzen duten gastuen agiriak aurkeztu beharko dira. Gainera, Laudioko Udalak emandako diru laguntzaz gainera, jarduerak beste erakunde batek emandako laguntzarekin edo bestelako diru sarrerekin egin direnean, zenbatekoa zehazten duen agiria aurkeztu beharko da. Dirua nondik datorren eta egindako jardueratan zertarako erabili den zehaztu beharko da.

Diru laguntza arrazoitzeko,

1) onuradunak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

. Egindako jardueraren memoria.

- . Gastu eta diru sarreren likidazio zehatza.
- . Ordain-agiri originalak edo egindako gastua arrazoitzen duten agirien fotokopiak. Merkantzien trafiko juridikoan edo administrazio eraginkortasuna izan beharko dute aurkeztutako fotokopiatutako agiriekin.
- . Ordain-agiriak ordaindu direnaren frogak.
- . Diru laguntza emandakoan zehaztu zen helburua bete dela egiaztatzen duen adierazpena..
- . Onuradunak zergak eta Gizarte Segurantzarekin dituen ordainketak eginak dituela frogatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira. Eskaera egin zuenean aurkeztutako agirien iraungitze data ez bada gainditu, ez da aurkeztu beharrik izango.
- . Jarduera ezagutarazteko erabili den kartel, foileto edo bestelakoren baten ale bat.
- . Gastuen eta diru sarreren likidazioan agertzen diren diru laguntzak jasotako bakarrak direla egiaztatzen duen zinpeko adierazpena. Era berean, egindako beste laguntza eskaerak atzera bota dituztela esan behar da zinpeko adierazpenean.
- . Ahal balitz, jarduera erakusten duten bi argazki.

Diruz lagundutako eskaera egin eta hilabete igaro baino lehen aurkeztu beharko da eskatutako dokumentazioa, deialdian beste zehaztapenen bat agertu ezean.

Egin beharretako bat edo gehiago bete ezean, emandako diru laguntza bertan behera gera daiteke.

2) Balorazio Organoak erabaki dezake 2010ko azaroaren 21a baino lehen Diru Laguntzen Legeko 30. artikuluko 2. apartatuan erabakitakoaren indarrez, emandako 60.000 euro baino gutxiagoko diru laguntzen onuradunek, aurreko apartatueta adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharrean, uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuz onartutako Diru Laguntzen Lege Orokorraren Erregelamendu Orokorreko 75. artikuluan erregulatutako justifikazio kontua aurkeztu beharko dute.

Balorazio Organoak onartzen badu justifikazio kontuaren aplikazioa, onuradunen ehuneko 20 baino handiagoa izango ez den zenbatekoa (zozketaz aukeratuak) egindako aktibitatearen justifikante eta agiriak aurkeztu beharko dituzte derrigor eta nahitaez.

Hamazazpigarrena.- Diru laguntzaren galera

Diru laguntza jasoko duten onuradunek beherago zehazten diren baldintzetako bat beteko ez balute, diru laguntza proposatu zuen Balorazio Organoak berak diru laguntza eta horren interesak itzultzeko eskaera proposatu dezake. Kultura Saileko zinegotzi ordezkariaren eta Udaleko Gobernu Batzordearen bitartez egin beharko du eskaera Balorazio Organoak. Bete ez diren baldintzen larritasunaren arabera erabakiko da diru laguntza itzuli behar den edo ez, eta, onuradunen batek egin beharko balu, transferentzia bitartez egin beharko luke Laudioko Udalaren kontu korrontean.

Hauexek dira ezarritako suposizioak:

- Eskaera egitean edo eskatutako dokumentazioan gezurrezko datuak ematea.
- Diru laguntza arrazoitzen zuen helburua osorik edo zati baten ez betetzea.
- Arrazoitzeko eginbeharra osorik edo zati baten ez betetzea.
- Diru laguntzaren kopuruak, berak bakarrik edo beste laguntza publiko edo pribatuekin lehian, onuradunak egindako jardueraren gastuak gainditzea.
- Ahalik eta azkarren Laudioko Udalari beste diru laguntza publiko edo pribaturen bat jaso denaren berri ez ematea. Laudioko Udalak likidazioa onartua izan arren, horren berri eman behar da.
- Eta, oro har, Oinarri hauetan zehaztutako eginbeharren bat ez betetzea. Onuradunen betebeharrak edo likidazioetan bete beharreko dokumentazioari dagozkienak izan daitezke.

Hamazortzigarrena.- Diru laguntzen zati baten itzulera edo eginbeharrak ez betetzea graduatzeko irizpideak

Jardueraren behin betiko likidazioa aurrekontuan zehaztutako gastuak baino txikiagoa denean eta onuradunak alde aurretiko berraztertzea eskatzen ez duenean, Balorazio Organoak diru laguntzen zati

baten itzulera proposatu dezake. Itzuli behar dena kalkulatzeko, aurkeztutako likidazioari egokitasun irizpideak ezarriko dizkio Balorazio Organoak.

Aurreko oinarrian zehaztutako eginbeharren bat ez betetzeagatik Balorazio Organoak diru laguntzaren zati bat itzultzea proposatuko balu, bete ez den eginbehar bakoitzeko emandako diru laguntzaren ehuneko 5 itzultzea proposatuko luke.

Hemeretzigarrena.- Zigorak

Eginbeharrak ez betetzearen larritasunak baloratu ondoren eta dagokion espedientea zabaldu ondoren, Balorazio Organoak zigorra —diruz egin beharrekoa edo ez— proposatu ahal dio Alkateari eta Udaleko Gobernu Batzordeari Kultura Saileko zinegotzi ordezkariaren bitartez. Azaroaren 17ko 30/2003 Legeko IV. Tituluko II. kapituluan zehazten dira egon daitezkeen zigorak, eta diru laguntza itzultzearekin ez dute zerikusirik. Dena dela, zigorra ezartzen den guztietan diru laguntza itzuli beharko da beti.

Jasotako diru kopurua itzultzeaz gainera, atzerapenak eragindako interesak ere ordaindu beharko dituzte Elkarte onuradunen administratzaileek edo ordezkari legalek.

Hogeigarrena.- Garapena, Interpretazioa eta Zabalkundea

Deialdi honen garapena egin ahal izateko, hartutako erabakien berri emango du Udal honetako Gobernu Batzordeak.

Oinarri hauek eragindako edozein interpretazio zalantzaren aurrean, Udal honetako Gobernu Batzordeak erabakiko du.

ALHAOn, iragarki taulan, ZUIN informazio orrian eta Udaleko web orrialdean (www.laudiokoudala.net) argitaratuko da deialdi hau.

Herrialdeko Buletin Ofizialean osorik argitaratzen direnean eta Udal Araudien Legearen (7/1985 Legea) 65.2 artikuluan agertzen den epea igarotakoan, izango dira indarrean oinarri hauek.

Laudio, 2009ko abenduaren 14a. Alkatea, JON KARLA MENOYO LLANO.